

ESKU-HUSKA. Unanue eta Ruiz ariko dira finalerdietan Retegi eta Errastik galdu eta gero

Belokiren lezioa

Burlatakoak sekulako partida egin zuen eta Alustizarekin batera erraz nagusitu zen Labriten

RETEGI II-A-ERRASTI 7
ALUSTIZA-BELOKI 22

Iraupena: Partidarena: 45 min.
Jokoarena: 25 min.
Pilotakadak: 464
Saketik: Alustizak 2, Retegik 0.
Markagailua: 0-13, 1-19, 6-20, 7-22
Bestelakoak: Iruñeko Labrit pilotalekua lepo bete zen atzo partida ikusteko. Lau pilotarien artean gorritz jantzita kantxaratu zen Julian Retegik jaso zuen txalo gehien, haren aldekoak baitziren zale gehienak, baina partidak berehala erakutsi zuen bestelako kolorea.

Edurne Elizondo | IRUÑEA

Etsita. Haserre eta etsita. Hala zegoen Julian Retegi Labriteko kantxan ligaxkako azken jardunaldiko partida hasi eta ordu erdi eskasera. 0-19 ageri zen ordurako markagailuan, Alustiza eta Belokiren alde. Eratsungo txapeldunak bazekien alferrikakoa izanen zela edozein ahalegin, Alustiza eta Beloki bezala dena bikain egiten ari ziren pilotarien kontra deus egiterik ez zegoela. Partida amaitu baino lehen, bizpahiru dejada eder egin zituen Retegik, bera txalotzera Labriten bildutako zale guztien laguntza eskertzeko edo. Eta gero aldagelara.

Alustiza eta Belokiren garai-penari esker, Unanue eta Rui-



JOXE LACALLE
Ruben Belokik partidu bikaina egin zuen atzo, Labriten.

zek osatutakoa izanen da Asegarce-Alti taldetik Binakako Txapelketako finalerdian ariko den beste bikotea, Retegi II.ak eta Errastik garaipena beharrezkoa baitzuten leku hori lortzeko.

Beloki, jaun eta jabe kantxan

Lau pilotarien artean Ruben Beloki izan zen nabarmenena, jaun eta jabe izan baitzen Labriteko kantxan. Ezkerrez zein

eskuinez pilotakada ia itzulezina bidali zizkion behin eta berriro Errastiri. Erreboteraino ere ailegatu zen bere kolpe indartsuetako batekin.

Alustiza, gainera, ederki aritu zen aurrean, atzean Belokik zuen nagusitasuna lagun, neurri handi batean. Arriskatu zuen, tantoa amaitzera joan zen, eta bai eta lortu ere.

Markagailuan argi eta garbi islatu zen urdinen nagusitasu-

na. Lasai zeuden, inolako presiorik gabe, finalerdietara sailkatuta baitzeuden jada, eta, horrek, garaiezin bilakatu zituen Alustiza eta Beloki.

Biak pozik ziren partidaren amaieran, norgehiagoka «gogor eta luzea» espero baitzuten aurrera egin ahal izateko garaipena beharrezkoa zuen bikote gorriaren kontra. Finalerdietako lehen partidari Unanue eta Ruiz izanen dituzte aurkari.

Titinek eta Zezeagak lortu dute finalerdietarako txartela

TITIN-ZEZEAGA 22 **OLAIZOLA I- GOÑI III** 15

Iraupena: 71 minutu..
Pilotakadak: testua
Saketik: Titinek 1, Olaizola I.ak 0
Markagailua: 0-3, 3-3, 3-4, 7-4, 7-6, 10-6, 10-7, 12-7, 12-8, 13-8, 13-9, 15-9, 15-10, 18-10, 18-15, 22-15.
Bestelakoak: Jende asko bildu zen Azkoitiko Gurea pilotalekuan.

Erredakzioa | DONOSTIA

Titin III.a eta Zezeaga Binakako Txapelketako finalerdietan dira jada, ostiral gauean Olaizola I.a eta Goñi III.a menpean hartu eta gero. Hain zuzen ere, aipatu bi bikote horiek dira Asperen adarrean finalerdietarako txartela lortu dutenak.

Titin izan zen partiduko pilotaririk onena. Errioxarra nagusi izan zen aurreko koadro-

etan, eta guztira bederatzita tanto egin zituen. Halaber, Joxe Mari Zezeagak ondo baino hobeto lagundu zion. Ueberarrak pilota gutxi galdu zituen, eta Fernando Goñi baino hobeto aritu zen. Asier Olaizolak, berriz, ezer gutxi egin ahal izan zuen Titinen joko erauntsiaren aurrean. Gainera, pilota askotxo galdu zituen, eta horrela ia ezinezkoa da aurrelari errioxarrari irabaztea.



PABLO S. QUIZA
Titinek partidu bikaina egin zuen herenegun, Azkoitian.

Titin eta Zezeagak, ordea, uste baino gehiago sufritu behar izan zuten garaipena eskuratzeko. Izan ere, markagailuan 18-10 aurretik zirela, bikote nafarrak bost tanto lortu zituen jarraian. Alabaina, hurrengo tantoan Fernando Go-

ñik kale egin zuen, eta Asier Olaizolak gauza bera egin zuen azken hiru tantoetan. Txapelketako lehen porrota izan zen bikote nafarrantzat, eta Titin eta Zezeagaren hirugarren garaipena. Haatik, bi bikoteak finalerdietan izango dira.

TXOKOAN

PALA

Daniel eta Juan Pablok Binakako Txapelketako bigarren garaipena eskuratu dute

Daniel eta Juan Pablok 40-24 irabazi zieten atzo Ziskar II.a eta Torreri Bilboko Deportivon jokaturako Binakako Txapelketato partiduan. Horrela, bikote nafarrak aipaturako txapelketako bigarren garaipena lortu zuen. Ziskar II.a eta Torrek, berriz, ez dute partidurik irabazi.

JAIALDIAK

OSTIRALEKO EMAITZAK AZKOITIA.

Txapelketakoa: Titin III.a-Zezeaga 22; Olaizola I.a-Goñi III.a 15.

HERNANI.

2. Mailako Txapelketakoa: Esnal-Mendia 14, Otaegi-Urretabizkaia 22

ATZOKO EMAITZAK

IRUÑEA. 16:30.

Ariznabarreta-Barriola 22; Agirre-Rai 17.
Txapelketakoa: Retegi II.a-Errasti 7; Alustiza-Beloki 22. *2. Mailako Txapelketakoa:* Koka-Nalda III.a 22; Aio-Fuertes 8

GALARRETA.

Matxin III.a-Gaztelu 29; Martinez-Reklusa 35. Zeberio II.a-Aizpuru 22; Elizalde-Matxin-Etxabe 40. Urreta I.a-Auzmendi 40; Iñigo-A. Lekunberri 28.

EUSKAL.

Brit-Astibia 30; Perugorria-Lander 29.
Binakako Txapelketaren finala: Bitoria-Eizaguirre 19; Altuna II.a-Txikuri 40. Ezkurra-Etxebe III.a 40; Altuna I.a-Lizaso 37.

DEPORTIVO.

2. Mailako Txapelketakoa: Urkijo-Agirre 26; Zarraga-Fernando 35. *Lehen Mailakoa:* Daniel-Juan Pablo 40, Ziskar II.a-Torre 24. Bereikua-Enbil 28; Alberdi I.a-Felix 30.

GAURKO PARTIDUAK

EIBAR. 17:00.

Esain-Hirigoien / Berraondo-Apeztegia.
Txapelketakoa: Capellan-Elkoro / Olaizola II.a-Arroyo II.a. Berasaluze VII.a-Gabarri II.a / Txafee-Jaio.

TAFALLA. 17:00..

Salaberria-Taberna / Berasaluze VIII.a-Balerdi. *Txapelketakoa:* Unanue-Patxi Ruiz / Tirapu-Armendariz.

CORTES. 12:00.

Alberdi III.a / Martinez (lau t'erdian). Etxaniz-Marin II.a / Ortiz-Errandonea III.a

PAUSUA. 16:00.

Elite Mailako Binakako Txapelketa: Muskarditz-Biscouby / Duhau-Itoiz Ibarrola-Hegiabehere / Aranburu-Dermit.
GALARRETA. 16:00.
Ziganda-Reklusa / Iturralde Barrenetxea II.a Elizalde-Aizpuru / Altuna I.a-Auzmendi Bereziartua-Urretabizkaia II.a / Sarasua-Zandio

Zalakain-Etxeberria II.a / Ziberio-Urko

EUSKAL. 16:00.

Ezkurra-Gaztelu / Perugorria-Lander Urretabizkaia I.a-A. Lekunberri-Iñigo Etxabe
Lezea-Zubeldia / Kalonge-Mendizabal Agirresarobe-Imaz / Zeberio-Ekiza